

# Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko abuztuaren 12a / IV. urtea / 139. zenbakia

## Administrazioak muzin euskarari

Joan den uztailaren 4an Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen dekretua onartu zuen Gobernuak, polemika eta haserre bizia tartean. Izan ere, UPN alderdiaren barruan izandako desadostasunek aurretik onartutako dekretua aldarazi egin zioten Gobernuari. Ondorioz, 1991ko urritik Hizkuntz Politika prestatzen ari zen dekretuak ez du antzik ere egun onartu denarekin. Ordukoak Administrazio barruko alde guztien adostasuna lortu zuen, eta sail juridiko guztiek oniritzia eman zioten. Bertan aipatzen zen Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzak hizkuntza plangintzaren irizpideak markatu behar zituela, eta onartutakoan sail bakoitzak erabakiko du bere plangintza. Halaber, zenbait aldaketa direla eta, askoz ere murriztago eta motelago ageri da euskararen normal-kuntzarako funtsezkoa den dekretu hau. Berriro ere, eta historikoki egin duen moduan, Administrazioak muzin egin dio euskarari.



### Turista euskaldunak

**A**rmada erraldoien gisan lehorreratzeko dira, tramankuluz armatuak, argazki kamara eskutan bertako izaera sakona erretratatzeko us-tetan. Sena izkutua diseatu nahi dute taxidermista batek azeri bat diseatuko lukeen moduan eta horrela gartzela ditzakete eternoan uste duten instante batean Kontxako Badia arratseko ordu urreztatuan (ze polita!) edota Berako mendiskak laino artean zelatarik edo Aralar bera goizaren argi urratzea erasotzen. Ez hori bakarrik, beste batzuk, teknikaren aurrerapenei esker, bideo kamara bitarteko ikusten dute errealtatea, irudiari erantsi mugimendu eta ahotsak bizitzaren puska iheskorak errazago antzeman dituelakoan, kitsch-ari eragingo diote

herriaren sustraiak biluztu nahiean. Baina oker daude, bizia ez da eredutara egokitzen, are gehiago ihes egiten dio eta beti, beste nonbait hartzen du ostatu. Leku guztietan sartzen dute muturra, hausnar ergelean. Taberna zuloetan bertako giza-paisaiarik pintoreskoena antzeman nahiez, etxeen aurrean gelditzen dira, aia-duruz, amotsa eta zoramena nahasten dituen distira begietan, zehatz arakatzan dituzte xehetasun niniñoenak ere, errozpe labratu hori, egurrezko soliboak, arropa zintzilikatzen ari den etxeoandrea. Makinari eragin eta aurrera egiten dute zerrendan apuntatua hurrengo lekura, aurrea beti benetakoaren puska galdu bezain ezinezko horren bila. Bertako bizimoduaz basitu direla us-

### Etxearen geografia

JUANJO OLASAGARRE



te dute, baina beren buruak ahanzteko saiakeran baino ez dira ari. Gero juzkuak datoz, gutxi ausartzen da ulertu ez dueneko epaitu gabe uzten, gehienek beren bizimoduarekin alderatuko dute bertako bizimodua, hango mixeria hemengoa paratuko dituzte mahai gainean, hemen mixeria gehiago

erabakitze; are gehiago batzuk erdeinuz beterik, herri horretan zer eginik ez dagoela ebatzirik zertara etorri diren galdetuko diote beren buruei. Hantxe hartuko dute untzia, kolore brilante-ko autoren bat, ziur aski, eta beren herrialdetara abiatuko dira bidaiaren bidez lor daitekeen jakintzaren inventariuma eginez. Turistak. Armada, txikia, badira ere, banaka lehorreratzeko dira beren puska ezkutua dei daitekeen horretan. Hala ere behin lehorreratuak ez dago geldiaraziko dituen amaren umerik, beren buruak begiratu eta arrotz direla erabakiko dute. Grabagailua atera eta bere uste duten puska hori arakatzeari ekingo diote, inkesta etnikoak lurperatu uste dutena berreskuratzeko galdetegiak hizkuntzaren arima galdua nonbait hurrin horretatik ateratzeko, kitscharen definizioa mugarriztat harturik bidea argi diezaien. Be-

ren buruen diseinua egin beharra dute, nolakoak diren ikasi beste norbaitek ezarritako ezaugarri zerrendaren arabera jatortasuna neurtzeko. Ikertuko dute harik eta ahitu arte zeren sailkatzen aztertzen, arakatzeko ari diren bitartean biziak ahur artetik egiten baitiei ihesi. Beren bidea luzea da, esan dute, eta helburua izaki liluragarria zeinen baitan hazten baitira, perfekzione osoz, sabel handia, biziaren zentzu tragikoa, jatorrasuna eta erabakigaitz bezain erabakior den zera sakon eta samina. Hau dena, jakina, soziazitate eta alkoholez ureztaturik. Beren az-tarnategia jarraitzen ematen dute bizia, beren buruak jator nola erantzungo lukeen barrundatzen. Erakutsi beharra dute, bestela ez dira deus eta ez dakite beren buruak erakustea ala bizitzea erabaki beharra dagoela. Bat ala bestea. Euskaldunak, euskalduntasunaren turistak.



## XX GURE AUKERAK

### ERAKUSKETAK

**Alfredo Diaz de Cerio** margolariaren obra ikusgai dago abuztuaren 15a bitartean Nafarroako Aurrezki Kutxaren Kultur Aretoan.

**Pintores Tafalleses de Hoy** izeneko erakusketa zabaldu zen joan den asteartean Tafallako Erakusketa Aretoan eta Lagar Aretoan. Erakusketa hau ikusteko aukera izango dute bertakoek datorren abuztuaren 28a bitartean, Kultura patronatuak antolatua.

### ANTZERKIA

**Teatro Estable de Navarra Pinpilinpaua** antzerki taldeak 'El bailecito' obra aurkeztuko du gaur Tafallan. Nafarroa plazan izango da ikuskizuna gaueko 8.30etan. Obra hori 'Kaleko Antzerkia' izeneko zikloaren barrenean eskainiko da eta Kultura Patronatuak antolatu du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Sailarekin batera, 'Arte eta Kultura 94' programaren barrenean.

### ZINEMA

**Etxarrenen** 'Mira quien habla ahora' filmea emango dute bihar, gaueko 10etan. Filme bera ikusteko aukera izango dute Zuñigan igandean.

### MUSIKA

**Altsasun** Txanbela folk taldeak joko du gaur, Foruen enparantzan gaueko 10.30etan.

**Mikel Markez**, Ihidoi eta Xalbador eta Pottoka taldeek kontzertua eskainiko dute Amaurriren igandean, bertako bestak direla eta. Kantaldia arratsaldeko 8etan hasiko da eta Nafarroako Gobernuaren eta Baztango Udalen laguntzarekin antolatu dute.

**Anje Duhalde** kantariak kontzertua eskainiko du datorren asteartean Agoitzan. Gaueko 12etan izango da Merkatu plazan eta musutruk.

### BERTSO SAIOAK

**Burlatan**, bertako Udalak antolatua, euskal bazkaria egingo da bertsolariekin, datorren abuztuaren 17an, astezkena. Mikel Mendizabal eta Millan Telleria ariko dira bertsotan Nogaleran eguerdiko ordu bi terdietan.

## NAFAR KRONIKA


JON ALONSO

## Egitaraua

Ardoa: mahatsaren zukutik ateratzen den edari bizia. Mahatsa, alea azukrez gehien betetzen denean jasotzen da. Ondoren zapaldu egiten da. Mahatsaren azalak legamia du bere baitan, eta mahatsa zapaltzean legamia mamia sartzen da, azukrea anhidrido karboniko eta alkohol bihurtuz. Ardo beltzak lortze-

tzen zuten hanka azpian. Gaur makinak erabiltzen dira lan horretarako. Lehenengo hartziduraren ondoren ardoa kupletan jasotzen da eta bertan zenbait eraldaketa kimiko gertatzen dira. Kolorea kontuan hartuta hiru ardo mota bereizten dira: zuria, gorria eta beltza. Hartzidura azukrea aldatu baino lehenago geratuz gero

netako protagonista nagusiak merezi du, ongi merezi ere, halako aurkezpen zientifiko txikia. Eta ez da ahaztu behar, gainera, ezaugarri medizinalak ere badituela, sendagarria dela, alegia. Eta hala, oso erabilia da kulturak sorrarazten duen egarria kentzeko, edo eta daukagun alkatea daukagula ahaztutzeko, ordu batzuetan



ko azala eta mamia batera hartitzen dira. Ardo zurietan, aldiz, azala kendu egiten zaio mahatsari hartzitu aurretik. Mahatsa zapaltzeko, lehen, mahatsa harrizko kutxatan sartzen zen eta gizonek zapal-

ardoa gozoa irteten da eta bukatu arte utziz gero ardoa kupletan lehortzen da. Ardo ezagunenei, non egin, hango izena ematen zaie, hala Frantziar Bordelekoa, Alemaniar Rhin-ekoa...etabar. Urtaro ho-

besterik ez bada ere. Ditugun herrikideak ditugula, bizi garen tokian bizi garela eta are, garenak garela ahaztutzeko ere. Ez da gaineratu behar oso maitatua dela eta bere zaleak ehun milaka zenbatzen direla.

## ASTEKO PERTSONAIAK



**Jose Luis Etxegarai**  
Alkatea

**Jose Luis Etxegarai** Lesakako alkatearen aurka salaketa aurkeztu du Goardia Zibilak, San Fermin jaietan Espainiako bandera udaletxean ez paratzeagatik. Lesakako alkate jeltzaleari behin baino gehiagotan eskatu zioten udaletxean Espainiako bandera jartzeko, baina horren ordez Nafarroakoa eta ikurrina kendu eta Lesakako bandera geratu zen soilik udaletxeko balkoian. Jose Luis Etxegarai alkatea «erabat harrituta» utzi zuen Goardia Zibilak jarritako salaketak, «inguruko herrietan ere ez baitute Espainiako bandera jartzen eta inor ez baitute horregatik salatu». Joan den ostiralean jaso zuen Etxegaraik salaketaren berri eta hilaren amaieran epailearen aurrean egin beharko du deklarazioa.



**Fernando Arretxe**  
Pilotaria

**Fernando Arretxe** pilotari luzaidarrak buruz buruko lehiaketako txapela irabazi zuen joan den igandean, Inaxio Errandonea 22-12 garaitu ondoren. Gasteizko Ogeta pilotalekuan Arretxe bete-betean aritu ez bazen ere, erraz nagusitu zitzaion neka-neka eginda amaitu zuen beratarriari. Inaxio Errandonea partidaren lehen erdian ongi ibili zen, markagailuan oreka eraginez, baina Arretxeren nagusitasuna agerian geratu zen bukaeran. Luzaidarra poz-positik agertu zen azken tantoa lortzean eta ospakizunetarako gogoia besterik ez zuen. «Heldu den urtean ere txapela lortzen saiatuko naiz, baina bien bitartean aurtengo ospatuko dugu», erran zuen Arretxek norgehiagoka bukatu bezain pronto.

## AHAZTU GABE!

### MUSIKA

**Su Ta Gar**, Lin Ton Taun, Bittor Aiape eta Bizkar Hezurra Goizuetan egongo dira igandean, gaueko 11etatik aurrera. Musikak udan duen protagonismoa ezin daiteke ukatu, eta Goizuetan antolatu duten kontzertu handi eta bikain honekin argi eta garbi ikus daiteke. Rocka eta trikitixa nahasiko dira Su Ta Gar eta Lin Ton Taun zestoarrekin eta Aiaperen ahots goxoaren artean Bizkar Hezuraren soinu gogorra agertuko da. Euskal musikaren alde ezberdina agertuko du bakoitzak. Kontzertu hau —Goizuetako gazte Asanbladak, Goizuetako Udalak eta 'Argia' aldizkariak antolatua— galdu nahi ez baduzu, lehen baino lehen eros ezazu sarrera. Aurretik erosiz gero 1.000 pezeta balio du. Iruñean Katu tabernan, Beran Errekalden, Donezteben Titin, Leitzan Leitzarran, Elizondon Intzan eta Iruñen Bertso-Hop diskodendan eros daiteke. Egun berean erosiz gero, 1.400 balioko du.

## jenero xumekoak

### Euliak eta Laura

Ari zen Petrarca Laura ederresten. Bi euli lizunak jostaketan zebiltzan. Badakit, Laura, esan zuen Petracak, badakit haientzat ez garela ez zu munduko neskarik ederrena, ez ni poeta txukunena. Eta euliak pasioak jota kontzentratzen ari ziren.

ELIAS SARASA - ERRO

## ADI!

### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



# Irulegiko ardoa omendu zuten

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Jende ugari bildu zen joan den igande aratsaldean Baigorriko karriketan eta herriko plazan besta batzordeak antolatutako Irulegiko ardoaren bestarentzat. Nafarroa Behereko herriak urteko bestak ospatzen zituen bezperatik eta aurreko tokian berezia haranean egiten den Irulegiko ardoari eman nahi izan diote jaien antolatzaileek, bertako sotoko laguntzarekin. Izan ere, lehen aldikotz, Baigorriko bestakari Irulegiko ardoa ospatzea molde berezi batez erabaki zuen besta batzordeak. Eskatu zieten baigorriar guztiei parte har dezaten, bakoitzak bere mailan, ardoaren omenaldi horretan.

Zenbait egun lehenago, sotoak bi lehiaketa bultzatu zituen ardoa eta mahasti gaiak hartuz. Lehen lehiaketa argazkilari guztiei luzatu zien sotoak, eskatuz le mari doakion argazki ederrena aurkeztea. Bigarren lehiaketan, berriz, saritu egin zituzten erakuslehoi ederrena egin zuten Baigorriko salerosleek. Argazkien zeingehiagokoa irabazi zuen P. Chaleon angeluarrak eta bigarren saria D. Dubertramp getariakoarentzat izan zen. Erakuslehoi ederrena Berterretzeko botikarena izan zen epaimahaiaren ustez, bigarren tokia Izarra ostatuak hartu zuen.

Mizel Bergouignan, Irulegi ardoaren sotoko zuzendariak bere poztasuna azaldu zuen, azpimarratuz Baigorriko saltegi



Auzo bakoitzak bere orga prestatu zuen.

gehienek parte hartu zutela lehiaketa horretan. Argazkien lehiaketari dagokionez, «huts bat» egin zutela gehitu zuen, ez baitzuten aski denborarik hartu lehiaketa antolatzeko. «Ororen buru, partehartze txikia izan dugu, jendeak ez baitu astirik izan argazkien egiteko» esan zuen Bergouignane. Horretarako, datorren urterako antzeko lehiaketa antolatu dute, «hilabete honetan hasiko dena, sariak

hamar hilabete geroago emateko».

### HERRIKO AUZOEN ORGAK

Hala ere, dudarik gabe ekitaldi nagusia iragan zen igande aratsaldean Baigorriko karriketan. Mahatsa eta ardoaren lemarrekin, herriko auzo bakoitzari orga egitea eskatu izan zitzaion. Orotara, sei orga ibili dira Juantorena ostatu paretik plazaraino, bildutako ehundaka ikusleen ar-

tean. Udatiar frango etorri bazen ere, herriko jendearen presentzia nabari zen. Finkatu zuten helburua lortu zutela adierazi zuten batzordekoek, «besta herrikoia eta bertako tradizioan sartuta egin nahi baitzuten».

Okozeiko orgak ireki zuen desfilea, mahasti eta ondoko ttatola eraiki zuten. Traktoreak iraztorraren itxura zuen, mahastizainek biltzea egiten zutenean. Ondoko organ, mahats-biltzea egin eta, sotoaren lanak erakusten zituen Urdozeiko orgak. Prentsa handi baten inguruan bildu ziren langileak, emakumeek mahatsa zapaltzen zuten bitartean. Gainera, karrikakoek dupagintza erakutsi zuten, bi maiasturu taulak lantzen zituztenean. Berexiko auzokoek taberna egin zuten, zeinetan Arrola abestalde kantariak ikusten ziren. Otorren, Eiheralde eta Lesparseko biztanleak elkartu ziren soto bat egiteko, Urdozeikoek Irulegiko ardoaren botila erakusten zutenean xistera handi batean.

Desfileko karroza guztiak plazan banaka sartu ondoren, Arrolako dantzari, kantari eta musikariek emanaldia hasi zuten ikusle anitzaren aurretik. Bi dantzen artean, «Xakuaren» mirakuluak goraipatu zituzten Martikorena eta Laka baigorriarrek. Bukatzeko, Irulegiko ardoa dastatu aitzin, Arrolako kantariak funtsezko galdera egin zuten eskatuz «nork erranen du ni ez naitela ostatu ibiltzen» kantuak dioen bezala. Nehork ez du arraposturik eman...



### Accelerator

Lau soiajale triste alde batera utzita, uda heltzen denean gehienok flotadorea erosi beharrik ez dugula sumatzen dugu. Moreako lakura, Irunberriko potxara, Arantzadiko igeritokietara edota Nafarroa duen itsasportu bakarrera —Hondarribira, jakina— hurbiltzen garelarik, neguan zehar —garagardoak gora, garagardoak behera— gerriaren inguruan flotadore natural eta propioa osatu zaigula ikusten dugu. Apokalipsia. Akabo. Ag!

Histeriak jota, egun gutxitan Johny Wismullerren —Whismuler? Guismuller?, Uismaler?— edota Raquel Welchen —Uelch? Guelts? Gueles?— gerria lortzen saiatzen gara. Haatik, borondate ahulekoak gara gu, eta ekoizkin dietetikoak hartzen ditugu, bai, baina posttrera. Erraiak koipez eta karbono hidratoz behar bezala bete ostean hartzen ditugu fibrazko gailatxoak edota txokolate-bionikoko light edaria, eta horrela ez dago deus egiterik.

Bada, ez larritu, sekula santan ez duzu eta gizentasunarekin arazo gehiagorik edukiko; izan ere, Nafarroako Gobernuak, nafar ororen ongizateaz arduratzen den erakunde goren eta txit agurgarri horrek, *accelerator* dun —telebistatik ikusten ez duzun progre integrista horietako bat bazara, txiste bat galdu duzu— flakatze sistema asmatu baitu, kontzertu-sauna.

Elizondon plastikozko karpa erraldoia paratu du, eta kontzertuak antolatu ditu bertan. Negutegi efektuaren poderioz, eta mila lagunak dantza egiterakoan sortzen duten beroari esker, bertan bi ordutan hamaika kilo gal ditzakezu. Gainera, *accelerator*-a: tabernan garagardo beroa besterik ez dute zerbitzatzen —gutxi, berehala amaitzen baita— horrela alkoholak flakatzea oztopatuko ez duela bermatzeko.

Ni neu naiz sistemaren eraginkortasunaren lekuko. Kiko Venenoren kontzertuan izan nintzen. Horren aurretik flotadore natural erraldoia nuen, eta orain, horren ostean, sifilis, barkatu, silfide baten antza daukadalada esaten didate.

### Zangoza

## Erdi Aroko afariak ostiralero

IRUNEA

Zangozako Udaleko Kultura Sailak antolatuta, abuztuko ostiral guztietan eta iraileko lehenengoan Erdi Aroan girotutako afariak egingo dira Carmengo konbentuko klaustro gotikoan.

Erdi Aroko afari hauek iaz ere egin ziren. Orduan bezala aurreko ere, Erdi Aroko sukaldaritza liburuetatik jasotako errezetekin prestatuko dira. Fruta, gazta zopa, toledana pastela, ardoa eta abar, ez da ezer falta. Janariaz gain, inguruko artisauek utzitako objektuek ere garai hartako giroa ahalik eta zehatzen azaltzeko helburua dute. Besteak beste, kandeleroek eta burdinazko ontziek apaintzen dute klaustro gotikoa.

Afari hauentzako antolatzaileek

adierazi dutenez, gonbidatuei eskaintzen zaien bazkaria Erdi Aroko nobleek dastatzen zutena da. Garai hartan bezala, mahaian eseri eta menua latinez irakur dezakete, gainera.

Erabiltzen diren errezetak, erran bezala, Erdi Aroko liburuetatik jaso dira gehienak. XVI. mendeko Granadosen liburua ere erabili dute. Liburu horietan agerian geratzen da garai hartako gizarteak elikadura gehiago zaintzen zuela; errezetekin batera, osasuna zaintzeko aholkuak ematen zituzten. Herri xehearen bazkaria, ziurrenik, ez zen hain goxoa izango.

Zangozara Erdi Aroko afaria dastatzera hurbiltzen denak, beraz, garai hartako sukaldaritza gozatzeko aukera paregabea izango du. Hasteko, fruta pixka

bat, meloia. Frutarekin gosea piztuta gazta zopa eskaintzen du menuak eta ondoren trujaleko tostadak. Eta okela jan eta gero, fruitu lehorrak jango dituzte gonbidatuek. Horrekin aski ez duenak gazta mota ugari izango du aukeran eta gozoak maite dituenak, toledana pastela. Afari guztian zehar, noski, ardoa edango dute eta nahi duenak infusioak. Guztien gustuko aukerak eskaintzen ditu, beraz, Erdi Aroko menuak.

Eta sabela bete ondoren, musika pixka bat. Gaur ostirala denez afaria izango da Zangozan eta gaurkoan Zangozako Nora abesbatzak jarriko du musika. Datozen ostiraletan berriz, Ciriaco anaiak, Sine Nomine Tailerra eta Fernando Remacha laukotea izango dira Zangozan.





Harremanak funtzionarioak aukeratzen duen hizkuntza izango dira aurrerantzean.

JOXE LACALLE

**N**afarroako Gobernuak indarrean jarri du Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzeko dekretua. Maiatzean onartu zena ordezkatu du dekretu berri honek, Hizkuntza Politikak prestatu eta Gobernuak berak onetsitakoa ez baitzen UPNren gustukoa izan. Dekretu berria askoz ere murriztagoa eta motelagoa denez, kezka bizia sortu du euskaltzaleen artean.

## «Beti atzera goaz»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Lege batek zazpi urte betetzen dituen, bada garaia dekretuaren bat emateko, bere garapenaren ondorioz sortutako ebazpenen bat arautzeko, emaitzak eskaintzeko. Euskararen Legeak zazpi urte bete ditu aurten, eta oraindik ez du deus ekoiztu. Luze, oso luze. Horregatik, 1991ko udazkenean Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzeko dekretua lantzen hasi zenean, legeak berak sortutako Hizkuntza Politikak dirulaguntzak banatzeko baino zerbait gehiagorako balioko zuela uste izan zuten askok. Orduan ekin zioten buru-belarri proiektuari Nafarroako Gobernuaren euskarazko gaiez arduratzen den zuzendaritzako buruek, bereziki Anjel Perez Plangintza eta Ikerketa Zerbitzuko zuzendariak. Lehendabiziko zirriborroa «nahiko posibilista» zen, «inor ez mintzekoa», egileen ustetan, eta bidea luzea izan zen hortik aurrera, jende askok eman behar baitzion onespina. Traba guztiak gaingiduta, martxoaren 21ean Nafarroako Gobernuak, Juan Cruz Alli lehendakariaren eta Miguel Sanz lehendakariordearen sinadurekin, oniritzia

eman zion. Bidea amaituta zegoen.

Aldaketak ugariak ziren hasierako proiektuarekiko, baina Hizkuntza Politikan denek esaten zuten atera zitekeen gauzarik onena zela. Poztekoa zela, alegia. Ez ziren, nolana ere, kritikak falta. Ere euskaldunetan ez zitzaion zirrikiturik ere uzten euskara hutsezko inongo aukerari, «elebiduna» baitzen gehien errepikatzen zen hitza. Marmari Administrazio euskaltzaleak biltzen dituen elkartearen arabera, bazirudien zuen erdararen presentzia ziurtatu nahi zela, «euskara bultzatu bainoago». Orduan ere atzematen zen Hizkuntza Politikari eskumen franko kentzen zitzaizkiola, baina kritika horiek ahuntzaren gaurdiko eztula ziren zetozenarako. UPNren barruan zalaparta marmitzen hasia zen. Ekaitza zekarren zeruak.

**UPN BARRUAN EKAITZA** Proiektua onartu eta berehala nabarmentzen hasiak ziren kontrako iritzia Gobernuaren alderdiaren barruan, eta apirilaren 3an egindako batzorde eragilean kritikak agerian azaldu ziren, bortitz. Orduan esan zen Allik eta Sanzek alderdiaren

sentsibilitatea kontuan hartu gabe emana ziotela oniritzia dekretuari, eta bileraren hasieran arazo ekonomikoak aipatu baziren ere —dekretua indarrean jartzeak, ezarian izanik ere, bazekarren lotuta kostu bat—, arlo ideologikorantz jo zuten berehala. Jose Ignacio Palacios parlamentariak bere txostenean zehazten zuenez, euskara lanpostu

**Aldaketak ugari dira bigarren dekretuan, eta nahikeria garbi azaltzen da: euskararen sarbidea motelagoa eta murriztagoa egitea.**

batzuekako eskatzea «populazioaren zati handi bat bazterte» zen, eta elebitasuna Administrazio Publikoan bultzatzea «dirua alferrik xahutzea». «Ez du ezertarako balio, inork ez, ezta txikia baino txikiagoa den gutxiengo euskaldunak ere ez dituelako bere kontsultak euskaraz egiten». Txostenarekin Euskal Autonomi Elkartea, Arzalluz eta EAJ nahasten zituen Pala-

ciosek. Alfredo Jaime Iruñeko alkateak, bere aldetik, dekretua udal autonomiaren kontra zihola azaldu zuen, eta «Nafarroan hitz egiten diren euskalkiei buruz zeuden aipamen eskasak» salatu zituen.

Baina kritikarik gogorrenak Jaime Ignacio del Burgok egin zituen orduan. Txosten luze batean, inkonstituzionaltasun zantzuak antzeman zituen diputatuak, «euskarari hizkuntza ofizialaren tratamendua ematen baitzaio ere mistoan». Azkenean hau izan zen nagusitu zen ideia, eta Nafarroako Gobernuak dekretua aldatzeko erabakia hartu zuen handik gutxira. Bigarren erredakzioan ez zuen parte hartu Hizkuntza Politikak, bere buruek azaldu dutenaren arabera, eta uztailaren 4an argitaratu zen.

**MOTELAGOA ETA MURRITZAGOA**

Aldaketa asko eta asko dira dekretu berrian, eta nahikeri garbia azaltzen da atzetik, helburu argia: Administrazioan euskararen sarbidea motelagoa eta murriztagoa egitea. Horrela, hasierako dekretuan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Tokiko Administrazioak, horiei

lotetsitako Zuzenbide Publikoko entitateak, eta izaera publikoko enpresak sartzen ziren aplikazio eremuaren barruan. Bigarren dekretuan izaera publikoko enpresak kendu egin dituzte. Garbi dago eremua murriztu nahi izan dela horrela, eta, ondorioz, eremu euskaldunetan lan egiten duten zenbait enpresek —Kudeaketa Institutu Teknikoek (ITG), kasu— ez dute dekretu hau bete behar izango. Bestalde, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak zituen eskumenak murriztu egin dira, lanpostuei buruzko irizpideen definizioa ez baitu berak egingo, sail bakoitzak baizik. Hau da, sail bakoitzak erabakiko du zernola nahi duen euskararen erabilera bere eremuan, zein epetan, eta zein baldintzetan.

Halaber, 4. artikuluan, eremu euskaldunetan funtzionarioek erabili beharreko hizkuntza ari denean, «hertarrek hautatzen duten hizkuntza egin beharko dutela» zioen hasierako dekretuak, eta bigarrenak aukeratu zuten du. Funtzionarioak nahi duen hizkuntza izango dela harremana, alegia. Ere mistoan —Nafarroako Administrazioaren enborra, gorputza eta burua dagoen tokian— ere aldaketak badira. Hasierako dekretuak aipatzen zuen eremu euskaldunera bidali beharreko agiriak elebitan egin beharko liratekeela, baina bigarren dekretuan zirkuitu elebidunak sartzen dira tartean. Hau da aspaldi proposatutako ideia, Iruñetik eremu euskaldunera bidaltzen den informazioa euskaraz joan dadin. Hala ere, oraindik ez dira sortu ere egin, eta, beraz, dekretu berriarekin, eremu euskalduneko udal eta herritarren gain gelditzen da euskararen erabilera finkatzea: espedienteak euskal eremuko udal batek euskaraz hasten badu, Administrazioa beharturik dago jarraipena euskaraz ematera, baina ez alderantziz, oraindik ez baitu Administrazioak zirkuitu elebidunik.

15. artikuluan, bigarren dekretuan, kendu egin dituzte bi artikululu. Batean azaltzen zen Nafarroa osoan indarra zuten inprimakiak elebitan egonen zirela, eta besteak eremu mistoko inprimaketan elebitako erabilerara joko zela «pixkanaka-pixkanaka». Badirudi honekin, batetik, Errenta, Ondare, edo BEZ Aitorpen elebidunak egiteko aukera kendu nahi dela, eta, bestetik, eremu mistoan elebitasunerako balizko bide hori ere itxi egin nahi dela. Bukatzeko, Xedapen Gehigarri bat gehitu zaio bigarren dekretuari. Bertan dioenez, «agiri, inprimaki, jakinarazpen eta komunikazioetan forma elebiduna euskarri fisiko bereizietan egin daiteke». Honek legeztatzen du Alfredo Jaime Iruñeko alkateak Sanferminetako programekin hartu zuen ekimena, eta euskaltzaleek hainbeste borrokatutako euskararen pre-





sentiari trabak jartzen dizkio. Izan ere, funtsezkotzat hartu da frankotan euskararen presentzia gizartearen arlo guztietan, erdaldunek normaltasunez ikus zezaten hizkuntza. Oraingo dekretuarekin, erdaldunak euskara denik ere ohartu gabe bizitzeko atea are handiagoa egiten da.

## OINARRI JURIDIKO EZTABAIDAGARRIAK

Aldake-ta hauen guztien justifikazio gisa, «segurtasun juridikoaren printzipioa sendotzea» aipatzen du dekretu berriak, baina EGUNKARIAK kontsultatuko iturri juridikoen arabera, onartutako testuak «inseguritate juridiko gehiago» agertzen du. Esate baterako, 5. artikuluan, 'onetsi' eta 'prestatu' hitzak azaltzen ziren aurreko dekretuan, eta berrian 'burutu' hitzak ordezkatu ditu. «Burutu ez da termino juridikoa» azpimarratzen dute iturri hauek, «eta,

kien su hori itzaltzea. Medikua-rengana joatean galdetuko digute ea nongoak garen, eta, medikuak nahi badu, atentzioa eskainiko digu. Botere gehiegi gelditzen da Administrazioaren esku, eta Administrazioaren betebeharrak da herritarren eskubideak betetzea». Uztailean argitaratu izana ere, gutxienez, susmagarria da, dekretua aurretik prestatuta zegoelako. Horregatik, erantzuteko ahots gutxi altxatu dira, ELA sindikatuak paratutako errekurso bat eta HBk emandako prentsaurerako bat izan ezik, eta dezepzioa nabaria da Marmari taldekoen artean. «Ideia izan da beti ez arautzean ongi bizi zela. Mugitzen gara itsaso zabal batean eta bakoitzak egiten du nahi duena. Dekretuaren helburua zen, hain zuzen ere, zeuden zailtasun horiek biguntzea edo erraztea. Horrelako dekretu bat egiteko ez zuen merezi». «Beti atzera goaz» da esaldirik errepikatuenak.

Honen kontrako argudio juridikorik aztertu bada ere, ez dirudi gauza handirik egin daitekeenik. Hemendik aurrerako ekimena, izan ere, udal eta herri erakundeek gainez galditzen da. Baina horretan ere, ez da laguntza handirik izanen. Euskara hutsean aritzeagatik paratuak dira dagoeneko hainbat errekurso, baina ez da ezaguna eremu euskaldunean erdara hutsez funtzionatzegatik inongo abokatu-aren ahotsa altxatu duenik.

**A** dministratziotik kanpo etorri da arbuioa, eta, bistan denez, erabaki politikoa nagusitu da dekretua aldatzeko orduan.

beraz, indefinizio handia dago». Halaber, 16. artikuluan «elebitan idatziko da» azaltzen zen lehen dekretuan, eta, berriak, «elebitako erabilerara joko da» dio. Horretaz gain, harridura sortu du hasiera-hasieratik inkonstituzional zantzuak aipatu izanak, kontuan hartuz hasierako dekretuak egin zuen bide luzea. Lehenik, Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiko letratuak aztertu zuen, eta ondoren Administrazio Juridiko Zentralak bi aldiz berrikusi zuen. Ondoren, Udal Administraziooko lege-gizonek aztertu zuten dekretua, eta Administraziooko zuzendariak ere, beren bileratan, dekretua aztertu eta berraztertu zuten. Ibilbide honetan aldaketa franko onetsi ziren, eta dekretuak bereganatu zituen guzti-guztiak. Irizpide juridiko asko, beraz, eta denak aldekoak. Garbi dago Administrazioetik kanpotik etorri dela arbuioa, eta, bistan denez, erabaki politikoa nagusitu dela euskararen normalizaziorako funtsezkoa den dekretu hau aldatzeko orduan.

Alde praktikoari begiratu gero, hainbat ondorio egiazatu daitezke. Dekretu berriarekin finkatzen ziren arlo zenbait ahalakera eta baldintza bihurtzen dira. Halaber, euskararen sarbidea Administrazioaren barruan motteldu egin dela ezin uka. Administraziooko langile batek oso garbi marrazten du egoera berria. «Dekretu honekin, sua dagoenean galdetu egin beharko zitzaien suhiltzaileei ea ongi dator-



Sail bakoitzak eratuko du bere hizkuntz plangintza.

JOXE LACALLE

## Zertarako Hizkuntz Politika?

A.B. / IRUNEA

Dekretuarekin galtzaile asko dira, eta euskaldun jendea nabarmen, baina Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusia da auzi honetatik kalte gehien jaso duena. Askoren ustetan Rodriguez Otxoa buru duen zuzendaritzari kendu egin zaio zeukan indar gu-

txi hori, balizko 'presioak' alde batera uzteko. Izan ere, erakunde honen betebeharrak nagusietariko bat zen Nafarroako Gobernuak sailen eta Administrazioaren hizkuntz plangintza egitea, eta horrela azaltzen zuen hasierako proiektuak. Alde guztiekin egin-dako kontsulten ondotik, eskumen hau nabarmen murriztu zen, eta apirilaren 4an onartu zen dekretu foralean 4. artikulua zehazten zituen zuzendaritzaren eskumenak: «a) Hizkuntz plangintza prestatzeko doakionean, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko Departamentuen arteko koordinazio organoa izango da; b) eremu euskaldunean nahiz mistoan euskaraz jakitea derrigorrezko edo merezimendu hutsa nahiz kualifikatutzat izanen duten lanpostuei buruzko irizpideak definitzea, beti ere Dekretu honetan ezartzen denari jarraituz; c) Orobat, lankidetzan ariko da tokiko entitateekin eta bertzelako administrazio publikoekin». Finean, plangintza ez, baina horretarako irizpide nagusiak markatuko zituen Hizkuntz Politikak. Dekretu berrian, ezta hori ere. Azkeneko bi puntuak ezabatu egin dira, eta lankidetzaren soilik eskatuz gero emango duela dio. Hau da, ez plangintza bere gainez, ez irizpideak.

Eta horrek esan nahi du, argi eta garbi, zuzendaritza honen betebeharrak inoiz baino zailagoak izango dira. Zertarako Hizkuntz Politika? da askoren galdera. Horrela ere ulertu omen dute Mirentxu Amigorena eta Anjel Perez Zuzendaritzako buruek eta

Jose Maria Rodriguez Otxoaren laguntzaileek. Amigorenak dimisioa aurkeztu du dagoeneko, eta Angel Perezek ez du hurrengo legegintzaldian jarraituko. Izan ere, dekretu hau izan da azken urteotako Hizkuntz Politikako buruen zeregin nagusia, eta gogotsu ibili dira dekretua atertzeko. Orain gelditzen zaie eskumen bakarra da beste sailek egiten dutenaren koordinazioa egitea, eta udalei eta kontseilariei laguntza eskaintzea, eskatzen dutenean.

Administraziooko langileen artean ere ez da kritikarik falta zuzendaritzak prozesu osoan izan duen jarreraren inguruan. Askok ez zuten begi onez ikusi proiektua atera zenean egin zitzaien kritikei erantzun bat eman ez izana. Izan ere, Nafarroako egunkari nagusia gogor mintzatu zen bere editorial batean, zuzendaritza kritikatu, «errealitatea itxuragabetzeagatik, bere interesak defenditzea». Orduan zuzendaritzan azpimarratu zen mezua izan zen zuzurtasunarena, polemikak saihestearik, baina emaitza, bistan denez, ez da oso ona izan.


Hemendik aurrera dirulaguntzak banatu eta bideratu izanen du ardura nagusia, eta horrek onura praktiko nabarmenak badiu ere, gutxiegi iruditzen zaie askori. «Hala ere, erru guztia ez da Gobernuarena» dio Administraziooko langile batek, «udal-txeek ere gauzak egin ditzaketako, baina ez dituzte erabaki politikoak hartzen. Herritarrek ere ez dute euskaraz egiten Administrazioarekin...».



Hizkuntz Politikak zituen eskumenak ezabatu egin dira.

LACALLE





Nafarroako taldekako xake txapelketako laugarren ihardunaldiko partida, 1993ko azaroaren 6ean jokatu.


Antonio Lisarri, 1.940 ELOkoa (Iruñeko Casco Antiguo)—Robeto Sola, 1.960 ELOkoa (Tuterako Santa Ana).

1.e4,c5; 2.Zf3,d6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,g6; 6.Ae3,Ag7; 7.f3,Zc6; 8.Dd2,Zd4; 9.Ad4,0-0; 10.Ac4,Ad7; 11.0-0-0. Alfilen erasokortasunari etekina atera nahian, jokia zabaldu dute. Kasu hauetan, kontua da ea nor iristen den lehenago aurkako erregerenganaino. Txuriak hobe daude horretarako. 11...Dc7; 12.Ab3,Ac6; 13.g4,b5; 14.h4,b4; 15.Zd5,Ad5; 16.Ad5,aG-c8; 17.Ab3,Da5. Logikoagoa dirudi 'a5' jokaldiak, denbora aldagai funtsezkoa dugu eta.

18.h5,g5. Txarra da oso. Ikus koadroa. Partidak ez dauka jada koponbiderik. 19.h6,Ah8; 20.e5. 'Dg5' arras jokaldi erabakigarria da. Beltzek zaldia eman beharra dute. 20...fG-d8; 21.f6,f6; 22.Dd3,d5; 23.Df5,Gc6; 24.hG-e1,dG-c8; 25.Ge7,Gc3. Mirakuluaren bila beltzak: 26.c3,c3. Ez zen ezer gertatuko, baina auskalo... Txuriek, ordea, ez dute arazorik. 26.Ac3,Dd8; 27.Gd5. Egoera eutsiezina da. Beltzek amore eman zuten.

## Otso harrapatzailea

**B**azen behin Jak izena zuen gizon bat. Jakek diru gutxi zuen eta urtean behin irabazten zuena otsoen larruekin esku-ratzen zuen. Jak, udan, herri txiki batean egoten zen, baina negurako han, mendi tontor batean, zeukan txabola batera joaten zen. Jak, negua hasteko, bere txabolara joaten zen eta negua bukatzen zenean herrira etortzen zen. Urte batean, herrian zegoenean, elurte haundi bat bota zuen eta hurrengo egunean hamar otso etorri ziren. Jende guztia beraien etxeetan satu zen eta Jakek bere eskopeta hartu eta bost otso bota zituen. Otso bat hil ezkerro beste otso guztiak borrokan hasten ziren.



Joaquin Labaien  
(LEITZA)

sontzi bulkatzen. Txabolara iritsi zirenean Emiliari asko gustatu zitzaion. Emiliak bere herrira joan nahi zuen baina Jakek ez zion uzten.

Hurrengo egunean Jak ehizara joan zen eta hiru harrapagailu jarri zituen otsoak harrapatzeko. Etxera joan baino lehen otso bat ikusi zuen inguruan eta tiro bat bota zion eta hil egin zuen. Etxera heldu zela, han, bere txabola ondoan, baxurde bat ikusi zuen baina alde egin zion.

Hurrengo egunean berriro joan zen baina berak jarri zituen harrapagailuetan ez zegoen ezer. Halako batean otso bat etorri eta Jak harrapagailu batetan sartu zen ustekabea, eta hala ere etxera abiatu zen, baina otsoek atzetik segitzen zioten. Jakek tiro bat egin zuen eta Emiliak aditu



Otsoek alde egin zutenean Jakek beste bost otso horiek hartu eta larrua kendu zien, eta diru mordoska bat hartu zuen. Orduan Jakek pentsatu zuen neska bat hartzea eta bere txabolara eramatea berari jana prestatzeko.

Hurrengo egunean neska bat hartu eta bere izena nola zen galdetu zion eta honek izena Emilia zuela esan zion.

Emilia eta Jak errekatik gora abiatu ziren, baina halako batean itsasontzia gelditu egin zen eta Emilia hasi zen itsa-

egin zuen eta korrika Jak laguntzera joan zen. Etxera ailegatu zirenean Emiliak harrapagailua kendu zion eta, ikusi zuenez, zauria zoldu eginga zitzaion. Orduan Jakek hanka mozteko esan zion Emiliari. Emilia ez zen ausartzen baina hala ere egin zuen. Hanka sendatu zitzaionean Jak eta Emilia herrira etorri ziren larru gutxirekin. Orduan negua zen baina Jakek ezin zuen ibili mendian eta herrira etorri zen Emiliarekin. Jak eta Emiliak ezkondu egin behar izan zuten.

## Saguzarraren izenak

Babel dorrean gertatu zena oso sonatua izan zen bere garaian. Hiztegiak, gramatikak, hizkuntz zerbitzuak, hizkuntz politikak, hizkuntz eskolak, klase partikularak, hizkuntz neskameak, azpidazketak dira, besteak beste, horren ondorioak. Hemen Euskal Baserrian, jostaketa horretan aritzen gara larubatero. Eman dezagun balizko herri bat, Gariozaldut izenekoa. Batzarre batean alkateta kopetilun daukagu. Mitxele-naren azken hamar liburuetan ez da ezta Gariozaldutko adibide bat ere ematen. Batek proposatu du ergatiboa ezabatzea, objektu zuzena biziduna ezean. Beste batek Zuberoako ñ inportatzea. Azkenean erabaki dute afera emaku-

mezkoen eskuetan uztea, beste aferekin egiten duten moduan. Ana Etxaide irakaslearen 'El euskera en Navarra' liburuko datuen arabera saguzarrak herri batzuetan Jaungoikoaren menpekoa dela dirudi. Luzaiden *jinkoaren oiloa* esaten zaio eta Barai-barren *jainkoaren mandatari*. Beste tokietan guztiz bestelako ospea dauka saguzarrak. Iturenen *sorginbelatxa* deritzazio eta Sunbillan *sorgintxori*. Nork ote du arrazoa? Txiripa izanen da baina garbi dago pelotari finak ateratzen direla saguzarra animalia zerutiartzat jotzen duten herrietan.

Dena den, batak nola besteak bat datoz saguzarra animalia he-

JUANTXO URDIROZ

~~~~~

**Ez usteak  
zure atean joka**

Garbi dago pelotari  
finak ateratzen  
direla saguzarra  
animalia zerutiartzat  
jotzen duten  
herrietan.

gaztia dela. Zenbaitek zuzen zuzenean inare esaten dio saguzarrari, Aezkoan, Muskitzen, Ziordian eta Narbarten, esate baterako. Saguzarrak eta inareak zeregin bera egiten dute, batak gauz eta besteak egunez. Horrexegatik herri aunitzetan *gaunare* esaten diote. Multzo horretakoak dira Iragi, Gerendiain, Unanu, Bakai-ku, Arantza, Etxalar, Bera, Almandoz, Ziga, Arizkun, Urdazubi eta Zugarramurdi. Baina denak ez daude ados horretan ere. Askorentzat, hegatzia baino, mundutar, lehortarra da eta beraz saguaren antza duela iruditzen zaie. Saguzarrak saguzar dauka izena Eltzaburun, Etxalekun, Itsason, Uitzin, Etxarrin, Oderitzen, Albiasun, Araitz ibarrean, Goizuetan, Lesakan. Gaztelaniaren *murcielago* hitzak

'sagu itsua' esan nahi omen du. Nori eman arrazoa oraingoan? Badira erdiko bideak. Eratsunen *erdi sagu erdi txori* esaten zaio.

Afera ez da hemen bukatzen. Beuntzan *pozoje* esaten zaio (pozoin ote?). Beintza-Labaienen *txapelitxa* (sapelatxa ote? Mitxelena dionez *sapelaitz* hitza *sapo* eta *belatza* hitzen elkarte da). Iturenen *sorginbelatxa* esatez gain, *belatxa* esaten zaio. Oizen *itsukapelua* esaten zaio. Hori metafora! Lesakan saguzar hitzak gain, *ipurdimotz* ere daukate. Belarriak haundi-haundiak ditu, eta halere ipurdia askoz ere azpimarragarriagoa iruditzen zaie. Gorago esan bezala, Babelen hizkuntza bat emanez gain, hizkuntzatxoak egiteko tresna ere oparitu zituzten.





Landarek duen gordailua.

JOXE LACALLE

**K**imika eta plastikoari uko eginez, produktu natural eta ekologikoak maite dituzten kontsumitzaileen elkarteak jaio zen 1992ko urrian Iruñean, Landare izenarekin. Hasieran 30 kide ziren eta gaur egun 160 dira. Ekologiaren alternatiba goraipatzen du elkarteak eta eredu horrek jarraipena izan du Gasteizen, Bilbon eta Donostian.

## Ekologiaren landarea

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Landare Kontsumitzaileen Elkarteak 1992ko urrian jaio zen, lagun talde naturzale baten asmoaren ondorioz. Hasieran 30 kide besterik ez zituen elkarteak baina, pixkanaka-pixkanaka, kopuru hori handitu, eta gaur egun 160 kide inguruk osatzen dute Landare.

Jose Roman Gomez da Lan-

dareko lehendakaria eta honela azaldu ditu hasierako une haiek: «Produktu natural eta ekologikoak kontsumitzen zituen taldea izan zen Landarearen sorburu. Baina produktu hauek, bai jatekoak, janztekoak, eta abar, oso garesti saltzen zituzten dendetan, banatzaile eta inportatzailearen figurek nabarmen garestitzen baizuten produktua». Bestalde, Nafarroan bazeuden eta badaude

lurra modu ekologiko eta naturalean, ongari kimikorik gabe, lantzen dutenak baina euren produktuak non saldu ez dakitenak. Hori kontuan hartuz, Landarearen jaiotza izango zen proiektua martxan jartzea erabaki genuen».

Alde batetik, kontsumitzaileen elkarteak sortuz, produktuak merkatzea lortu dute eta, bestetik, nekazari ekologiko hauen es-

kaintzari erantzuna eman diote. Baina Jose Roman Gomezek azpimarratu duenez, kimika eta plastikoaren kulturaren aurrean, ekologia eta naturalaren alternatibari eustea da garrantzitsua.

Elkarteak aurrera eraman ahal izateko, egituraketa beharrezkoa zela argi izan zuten hasieratik, baita kide guztien arteko lana, «hiru edo lau hilabeteren buruan porrot egin zuen proiektu asko

ezagutzen baikenuen». Honela, elkarteak osatu, lokala aurkitu eta hornitzaileekin harremanetan jarri ondoren, langile bat kontratatu zuten, Alicia. Bera da lokalaren arduraduna. «Elkarteko kideak honat datoz eta behar dutena hartzen dute» azaldu du. Elikaduraz gain, zapatak, arropak, eta abar dituzte, guztiak naturalak eta ekologikoak. Gainera, Biolur bezalako nekazari talde ekologisten produktuez gain, elkarteak kideek ere euren baratzetan lantzen dituzten gauzak, barazkiak eta abar, eskura ditzakete Landaren.

Landare ez da kontsumitzaileen elkarte soila, ikastaroak eta bestelako ekintzak ere egiten baitituzte, Gomezek dioenez: «Sukaldaritza ikastaroak antolatu ditugu, besteak beste, hemen ezagutzen ez diren produktuak ezagutarazteko asmoz, eta datorren urterako ere haurrentzako kanpamentua prestatzeko asmoa dugu, beti ere ekologiaren izpiritua nagusi izanda».

Baina jaio zenetik arazoak ere izan ditu Landarek. Elkarteak jaio ondoren, Gasteizen antzeko elkarteak sortu zuten baina Iruñekoak ez bezala, publizitate handia egin zuten. Elkarte horren berri izan bezain laster, bertako dendari batzuk kontra agertu ziren eta Iruñeko zenbait dendarekin harremanetan jarri ondoren, hornitzaileekin hitz egin eta Landareri produkturik ez banatzeko eskatu zieten. Gomezek dioenez, elkarteak aurrera zihoala ikusi zutenean «jeloskor» jarri ziren. «Gure produktuak merkeagoak dira, baina hori ez da Landarek duen helburu bakarra, ezta garrantzitsua ere». Gomezen hitzetan, «izpiritu ekologikoarekin sortutako elkarte bat kontsumo merkatu klasikoan sartzea ez da bidezkoa».

Landarekoek elkarteak jaio zen une beretik kide kopurua mugatzea erabaki zuten, eta gehienez 200 izango dira. «Gure asmoa ez da ahalik eta kopuru gehien lortzea, garrantzitsua bakoitzak besteak nortzuk diren jakitea da», Gomezen hitzetan.



Landareko kideek behar dutena hartzen dute gordailutik. JOXE LACALLE

## Aste berdea

E.E. / IRUÑEA

■ Kultura Ekologikoaren Aste Berdea izango da urriaren hasieran, 2an hasi eta 9ra bitartean. Asmo hau aurrera eraman asmoz, urtarrean hasi ziren lanean Landareko kideak, Biolur elkartearekin batera, eta Eonavarra elkarteak sortu dute aste hau antolatzeko. Aste osoan zehar, elikadura eta osasuna bezalako gaiak izango dira protagonista, gai bakoitzak egun berezia izango duela. Ostirala eta igandea bitartean, berriz, azoka izango da Gotorlekuan. Produktuak, noski, ekologiko eta naturalak.

Natura eta ekologia izango di-

ra, beraz, urriaren lehen asteko izarrak. Ekologiarekin zerikusia duten gaiak aztertzeaz gain, Madril, Katalunia eta beste zenbait lekutatik etorritako artisauek ere euren lana erakusteko aukera izango dute, beti ere lehengai naturalekin egindakoak. Tailerrak eta ikastaroak ere egingo dira. Horien artean, erditze naturalari buruzkoa nabarmendu du Jose Roman Gomezek.

Aste Berde honen helburua, Gomezek azaldu duenez, ekologia benetan zer den erakustea da. «Askoren ustez ekologistak erradikalak dira, besterik ez, eta guk hori ez dela egia frogatu nahi dugu. Ekologia alternatiba oso

bat da, bizitza ulertzeko beste modu bat». Gainera, «produktu ekologikoak ez direla garestiagoak argi utzi nahi dugu».

Ekologiari eskainitako aste hau antolatu ahal izateko, Nafarroako Aurrezki Kutxaren, Iruñeko Udaleraren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza izan du Eonavarra. «Nafarroako Gobernua laguntzeko prest azaldu da, Hezkuntza, Ingurugiro, edo Nekazaritza sailak parte hartzen ari dira aste honen antolakuntzan». Azken finean, dio Gomezek, «aukera ona da Nafarroako Gobernuarentzat bere irudia garbitzeko, beste gaitan egiten ari dena ikusita, batez ere».



# «Ilunbekoak dira liburu honen orduak»



Patxi Zabaleta, Iruñeko bere bulegoan.

JOXE LACALLE

A. BARANDIARAN / IRUNEA

1929an girotuta, 'Ukoreka' eleberriak umezurtz baten historia azaltzen digu, umezurtzia, baserria, eta komentuko gaiak nahasturik. Ez da zaila Umberto Eco idazle italiarraren 'Arrosaren izena' liburuari antza hartzea, baina Zabaletak liburu hura hobea dela dio, barrezka. Existenzialisten bidetik jo duela azpimarratzen du, literaturaz gain, gizakia, gizartea, eta mundu oso baten bere ikuspegia azaltzen saiatu baita narrazioan.

**EGUNKARIA.**— Zure lehendabiziko eleberri luzea da, baina kontakizuna ondo biribilduta dago, eta erakargarria da irakurlearendako. Nolako izan zaizu liburuaren osaketa?

**PATXI ZABALETA.**— Liburu honen lehendabiziko zirriborroak oso aspaldikoak dira. Egondur naiz urte askoz pixka bat gogorik gabe argitaratzeko, edo, hobeki esanda, presatuak neuzkan idazkiak hobeki biribildu nahirik, eta hori ez da inoiz bukatzen. Orain hasi naiz argitaratzen, eta bukatua daukat beste eleberri bat, 'Errolanden harria' izena duena, Euskal Herrian gehien iraun duen ipuinari buruz egindako fikziozko nobela bat. Gainera, orain argitaratu du-

dan honek badu jarraipenik, beste bi liburuekin. Bigarrena, 'Badena dena da' izena duena, laster argitaratuko dut, orraztea bakarrik falta zait eta. Liburu honen jarraipena da, pertsonaia berberekin. Hirugarrenaren zirriborroak besterik ez daukat. Orduan, bakarren batzuk bultzatuta, hartu nuen argitaratzen hasteko erabakia. Niri beti sartzen zait gogoak gauzak aldatzen hasteko, eta hori, alde batetik, arrisku bat izaten da, eta bestetik, garairen lekukotasun hura ere kentzen zaio narrazioari.

**EGUNKARIA.**— Liburu honen aurkezpena hala-moduzkoa izan zen, ez baitzuen bertan egoterik izan, eta aurretik ere zalaparta handirik gabe aterazen kalera 'Nafarroako azken Mariskala'. Jende askok ere ez du zure idazle alde hau ezagutzen.

**ZABALETA.**— Ni ez naiz literaturatik bizi, eta egiten dut literatura gehiago zerbait idazteagatik, literatura bera egiteagatik baino. Eta galdetuko balidakete ea literatura helburu edo tresna den, nik tresna dela esanen nuke. Horren ondorioz, 'Nafarroako azken Mariskala' idatzi nuenean, Historiako gertakizun batzuk gaurkotatuz gainera, beste ideia ere kaleratu nahi nuen,

«Ez naiz literaturatik bizi, eta egiten dut literatura zerbait idazteagatik literatura bera egiteagatik baino gehiago».

eta nahi nuen hori plazaratu. Ez dakit noraino iritsi izan den, baina pista bat emateagatik esanen nuke badirela preso mordoska idatzi didatenak esanez liburu gustatu zaiela.

**EGUNKARIA.**— Eta 'Ukoreka' liburuaren asmoa zein da?

**ZABALETA.**— Honen helburua ausartagoa da. Hor adierazi nahi dut Euskal Herriko historiako ikuspegi batez, aldatzen ari diren izateko modu batzuei zitzaien atxikimendu dramatikoa, eta horretaz gainera baita pentsamolde bat ere. Horretarako tresna edo aitzakia dira gertakari historiko horiek. Harroa iduri liteke, baina beste literato askok ere helburu hori zuten, existenzialista guztiek, esate baterako: literaturaren bitartez bizimoduari eta pertsonen buruzko ikuspegi bat.

**EGUNKARIA.**— Narrazioan,

izan ere, tartekatzen dituzu burutazio filosofiko zenbait.

**ZABALETA.**— Hori da kondairaren lerroetako bat. Hori nahasten da besteekin, eta ezin da oso luzea izan, bestela irakurleak aspertuko litzatekeelako. Hori guztia adierazteko behar da liburu bat baino gehiago.

**EGUNKARIA.**— Kontakizunari hartzen zaio Umberto Ecoren 'Arrosaren izena' liburuaren antza, monasterio giroarengatik, mutikoaren istorioarengatik...

**ZABALETA.**— Ecoren eleberria askoz ere hobea da nirea baino. Baina, gainera, Ecoren egiten dituen ambientazioak eta istorioak ez dute zer ikusirik honekin. Iruditzen zait ere bere leloa askoz ere literarioagoa dela nirea baino. Nirea existenzialistagoa iruditzen zait.

**EGUNKARIA.**— Ez zara literaturatik bizi, eta tresna bat dela diozu. Patxi Zabaletaren buruan bada alde bat literaturarendako, beste bat abokatu lanendako, beste bat politikarako...?

**ZABALETA.**— Nola esanen nizuke hori, hain zuzen ere liburu honetan azaltzen den lelo nagusia izanik den guztia batasuna? Zalantzarik gabe dena nahasia da eta gure bizimoduaren gertatzen diren gauza guztiak elkarri eskua ematen diote. Nik esaten dudanean literatura tresna bat bezala erabili behar dela, ez dut ukatzen edertasuna edo lilura, zirrara sortzea literaturaren helburua denik. Poesia zenbat eta politagoa den, bere esanahia orduan eta sakonago sartuko da irakurlearen bihotzean eta gizartearen baitan.

**EGUNKARIA.**— Nondik ateratzen duzu denbora idazteko?

**ZABALETA.**— Ordu asko ditu liburu honek, eta gehienak ilunbekoak. Oso merkea da idazten aritzea.

**EGUNKARIA.**— Baina denbora ez da oso merkea...

**ZABALETA.**— Ez, denbora asko dago liburu honetan. Gogoan izan behar da liburu honek duela amaiera lerro batzuentzat, edo marra batzuentzat, baina ondoren datozenekin lotua dagoenez, denbora asko behar da.

## Patxi Zabaleta

IDAZLEA



SOSLAIA

### Beste bi laster

'Ukoreka' izena duen bere lehen eleberri luzea plazaratu berri du Patxi Zabaleta leitzarrak, Txalaparta argitaletxearen eskutik. Abokatu, politika gizona eta euskaltzaina, poesia, narrazio laburrak eta kontakizun historikoak zituen orain arte plazaratuak, baina gogoz ekin dio eleberriak kalera ateratzeari. Aspaldian mesanotxean gordeta zituen ipuinak eta oharak bildu, eta, batzuek animatuta, ez bat, baizik eta hiru liburu idazteko adina material ateratu du Zabaletak. Hurrengo biak ere laster aterako dira, bigarrenari orrazketa lana baizik ez zaiolako falta, eta hirugarrenak ohar eta zehaztapen guztiak eginak dituelako. Hiru-ek protagonista berberak izango dituzte, «azaldu nahi dudana guztia liburu bakarrean ez zaidalako sartzen» dioenez.

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

